

UDAKO ZINEA

‘Izarrak’ plazan

Gaur, bihar eta etzi hiru pelikula izango dira gaueko 10:30etan.



Gau giroaren menpe egongo dira
Hollivoodeko izarrak

Gaur *Inocencia interrumpida*-rekin eman-
go zaio hasiera aurtengo udako zineari.

James Mangold zuzendari duen film honek 17 urteko neska baten bizitza kontatzen du. Dituen arazoak medio, psikiatrak Claymoore ospitalera bidaliko du. Han egindako lagunek bere bidea argituko diote.

BIHAR ETA ETZI

Bihar, *Toy Story 2* izango dugu. Jostailuak bizidun bihurtuko dira, lagun bat

erreskatatzeko. Zuzendaria: John Lasseter.

Erin Brockovich-ek itxiko du aurtengo zine festa. Emakume honek, heriotzak eragiten dituen ur zikinak aztertuz, errudunak aurkituko ditu, eta gogor borrokatuta, *eroi* bihurtuko da.

HAMAIIKA EDIZIO

Jende ezberdina ibili izan da udako saioak antolatzen, hamaika edizio osatu arte. Lehenengo biak Tilosetan egin ziren, eta *Potenkin* taldea izan zen 1992an pantaila haundia

Gudarien En-parantzara eramana zuena.

Talde berak 93 eta 94an ere antolatu zuen udalarekin haserrealdia etorri zen arte. Orduan, kanpoko enpresa bati eman zitzaion antolatzeko agindua, eta gaurdaino horrela izan da.

Potenkin:

“Taldea ibernazio fasean dago, seinale baten zain”.

Iñigo Elkoro ‘Tranki’ askatu dute

Xabin del Bado eta Mikel Korta, berarekin batera atxilotutako biak ere, kalean dira. Bakoitzari bost milioiko fidantza jarri diote.

Atzo arratsaldeko zazpitan irten eta gaur goizaldera iristekoa zen Hernanira “itzalpean” egon ondoren. *Tranki* Barajaseko aeroportuan atxilotu zuten, Mexikotik bueltan zetoirela. Akusazioa: ETako kanpo harremanetarako kide izatea. Kartzelan egon den bitartean, 44 eguneko gose greba egin du.

ATZO ONGI ETORRIA, ETA IGANDEAN OMENALDIA

Iritsi bezain pronto jaso du herritarren estraineko ongi etorria. Bere jaioterriak, Bergarak, hernaniri aurre hartzen ez badio behintzak, igandean jasoko du omenaldi lasaiagoa. □



Iñigok laster du bere argazkia kentzeko aukera.

Dobera eta AEK-k hitzarmena sinatu dute udalarekin

Bi taldeei diru laguntza eta lokala utziko dizkie udalak, egiten duten lana aitortuta.



AEK eta udalak luzerako hitzarmena sinatu zuten atzo.

ASTE honetan bi hitzarmen sinatu berri ditu udalak. Bata Dobera Euskara Elkartearekin eta bestea AEK euskaltegiarekin. Bietan, diru laguntza eta lokalen erabilera zehazten dira, gainerako baldintzekin batera.

DOBERAK URTE BETERAKO

Doberak egiten dituen kultur ekintzetarako nahiz lokalaren mantenimendu gastuetarako, 3.500.000 pezeta emango ditu udalak. Lokala ere utziko dio, euskara sustatzeko ekintzetan erabiltzeko baldintzarekin.

Beste jarduera batzuk ere elkarlanean antolatzea ontzat hartzen du hitzarmenak, baldin eta bi aldeek ondo iritiz gero.

AEK: “AZKENEAN BAI”

AEK-k urteetan lortu nahi izan duen hitzarmena sinatu du. Ikasleentzako beka programa, diru laguntza eta lokalen erabilera dira adostutakoa. Hitzarmena hamar urterakoa da, baina diru laguntza haunditu liteke premiazko ikastaroak bideratzeko.

Luis Intxauspe irakaslea

“Gustora gaude, hitzarmenak elkarlanerako aukera ematen duelako”

IRAGARKI MERKEAK

ZENBAT HITZ,
HAINBAT PEZTA.
Deitu 943 330899ra



**HAIDA
TABERNA**

Kardaberaz 5
HERNANI

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

★ ASISTENTZIA TEKNIKOA,
GAS ETA BERONGINTZAN.
★ GAS PROPANO, BUTANO
ETA NATURAL MANTENUA

Aristizabal 9 Beh
Tel: 943 33 37 4

EROSKETA OHITURAK AZTERGAI

Hernariarrok zer, nola eta non erosten ote dugu?

‘Euskara merkataritzara’ egitasmoaren barruan, herriko 300 familietako erosleekin azterketa egin du udalak. Aurkezpena, gaur 20:00etan udaletxean bertan.



“Merkia ta ona herrian dagona!”

URTE mordoak daramaki udalak dendetan euskara bultzatzen: *Euskara Merkataritzara* proiektuan merkatariei euskara erabiltzeko zenbait laguntza ematen dizkie: diru laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, itzulpen zerbitzuak, aholkuak... Aurten urrutirago jo dute: erosle on hiturak aztertu

dituzte. 300 familietan gal-
Siadeko Elkartearen ahulkuekin ari da udala.
dezka ibilita atera dute gure

MERKATARIENTZAT LAGUNTZAK

- Diru laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko.
- Euskarazko eskola bereziak.
- Itzulpen eta zuzenketa zerbitzua.
- Aholkularitza.

■ HITZ BITAN



✓ FERIA

Gaur osteguneroko feria. Landare eta hegaztiena Atzietan eta gainerakoak Latxunben.

✓ MENDI IRTEERA ASTEBURUAN

Uztailaren 15-16an Pic Ardidenera. Zerrenda Txili tabernan egongo da eta bidaiaren prezioa 120 liberatakoa da. Irteera uztailaren 15ean goizeko 10etan plazan. Jana bakoitzak berea eraman beharko du.

✓ BERTSOLARITZA

Larunbatean bertso bazkariak elkarrekin *Utzi Hernani Pakean* plataformak antolatuta. Sarrerak salgai: Rioja, Onyi, Garin eta Txilin.

✓ POLITIKA

Bihar Haika gazte taldeak Amaier eztabaida prozesua hasiko du. Gazteak parte hartzera gonbidatu ditu. Gaztegunean, arratsaldeko lauetan.

MATRIKULAK HERNANI INSTITUTUAN

Formakuntza zikloetako matrikula epea bihar ixten da

EPO eta Agustin Iturriaga Institutuak irailerako eskaintzak martxan ditu. Hona hemen Formakuntza zikloetako eskaintza:

Formakuntza zikloak

Erdi mailakoak

-Ekipo eta Instalazio Elektronikoak (D).
-Mekanizazioa (D).

Goi mailakoak

-Informazioa eta merkaturatze turistikoa (A).
-Proiektu mekanikoen garapena (D).
-Delineatzaile proiektatzailea (D).
-Kultur eta gizarte animazioa (A).
-Alojamendua. Turismo arloa (A).

Informazio gehiago:
☎: 943-551958-551188



Lehentxeago edo geroxeago denok pasa behar izanten dugu derrigorrezko bigarren hezkuntzatik.

A G E N D A

❖ ZINEA
⇒ Inocencia Interrerrunpida.
Zuzendaria: James Mangold.
22:30etan plazan.

⇒ La vida de Bryan.
Zuzendaria: Monty Piton.
21:00etan Itxaski tabernan.

INGURUAN

❖ KALE ANTZERKIA
Maimur. Saltinbakiak
Grosen, Txofre plazan.
20:00etan.

❖ AÑORGAKO JAIK
⇒ Zikiro tropikala
⇒ Etzakit

❖ BEKAK
Turismoari buruzko ikerketa egiteko hiru beka (2 milioi, bakoitza). Epea: uztailak 22. ☎ 945-01800.

❖ LEHIAKETAK
Jeus Maria Leizaola saria. “Autonomia”-ri buruzko lan zientifikoak (Euskaraz/erdaraz). (1.000.000) Epea: Abuztuak 29. IVAP, Prim kalea, 7, 2006, Donostia.

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 550093
- Udaltzaingoa: 333288
- DYA: 464622
335533
- Anbulategia: 557750

✚ FARMAZIAK

- Egunez: Irigoyen (Elkano, 2 ☎ 552087)
- Gaez: Tanco URNIETA (San Juan, 36. ☎ 550942)